



BALDINTZEN PLEGUA BTT PROBEN ANTOLATZAILEENTZAT: EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETA EUSKADIKO BTT TXAPELKETAK

2017.12.24

SARRERA

EUSKADIKO BTT OPEN eta EUSKADIKO BTT txapelketek ezaugarri bereziak dituzte, proben izaera eta parte-hartze maila direla eta. Horregatik, proben antolatzaileek arreta berezia eman beharko diete zenbait gairi, eta batik bat logistikaren eta langileen azpiegiturarekin zerikusia dutenei, txapelketak ahalik eta modurik onenean garatzeko.

Baldintzen Plegu hau idazterakoan, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren eta Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren araubideak kontuan hartu dira. Dokumentu honen helburua da antolatzaileentzako eredu izatea, jarraitu beharreko irizpideei dagokienez.

EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETAREN EGUTEGIA

Proba hauek osatzen dute:

- OPEN DE EUSKADI BTT – XCO (Zirkuitu olinpikoa)
- EUSKADIKO BTT OPEN – XCM (Maratoia)
- EUSKADIKO BTT OPEN – DH (Jaitsiera)
- EUSKADI BTT TXAPELKETAK – XCO, XCM eta DH

Kontraktorik adierazi ezean, EUSKADIKO BTT OPEN EGUTEGIARI egindako erreferentziak EUSKADIKO BTT TXAPELKETEI ere aplikatzen zaizkie. Izan ere, azken horiek EUSKADIKO BTT OPEN egutegiaren parte dira, bakoitza dagokion modalitatean (XCO, XCM eta DH).

ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNAK ETA ESKUMEN EREMUA

- Antolatzailea da proba-antolakuntzaren erantzule osoa eta bakarra, eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren arauak bete beharko ditu, baita administrazioari, finantza-arloari eta zuzenbideari dagozkionak ere.
- Antolatzaileak bere gain hartuko du probaren zuzendaritza nagusia. Antolakuntzaren zuzendaritzak ebatziko ditu antolakuntzarekin lotutako arazo materialak, indarrean dauden araudiak errespetatuz eta epaimahai teknikoari kontsulta egin ostean.
- Euskadiko Txirrindularitza Federazioak eta probaren Epaimahai Teknikoak kirol-eskakizunak kontrolatzen dituzte soilik, eta, beraz, antolatzailea da antolakuntzaren eta instalazioen kalitatearen eta segurtasunaren erantzule bakarra.
- Antolakuntza da erantzule bakarra, autoritateen, parte-hartzaileen, laguntzaileen, ofizialen eta ikusleen aurrean.

PROBAN IZENA EMATEA

Antolatzaileak, haren Lurralde Federazioaren bidez, Euskadiko Txirrindularitza Federazioari eskatuko dio proba dagokion modalitatearen EUSKADIKO BTT OPEN EGUTEGIAN sar dezan.

EUSKADIKO BTT OPEN – XCO probek, antolatzaileek hala eskatzen badute, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren egutegian sartuko dira, H kategoriarekin.

Proba guztiak EAE osoan jaiegun den, larunbat edo igande batean gauzatuko dira. Egun berean EUSKADIKO BTT OPEN egutegian kategoria bereko beste proba bat badago, proba ez da onartua izango.



PROBAK IZAPIDETZEA – DOKUMENTAZIOA – IBILBIDEAREN KOKAPENA

Antolatzaileek kirol-baimena eta gobernuaren baimena lortzeko izapideak gauzatu beharko dituzte heuren Lurralde Federazioaren bidez, proba egin baino hogeita hamar (30) egun lehenago gutxienez.

Dokumentazioan, alderdi hauek xehetasunez adieraziko dira:

- Lasterketen irteera-ordutegiak.
- Ofizial entrenamendu-ordutegiak (izatekotan)
- Izena emateko lekua.
- Ibilbidearen planoak, honakoak zehaztuta: luzera kilometrotan, irteeraren eta helmugaren kokalekua, laguntza teknikorako eta anoa-hornidurarako zonak, etab.
- Sarien zerrenda.
- Txanpenezko sarien zerrenda eta banaketa (izatekotan)

Lurralde Federazioek exijitzen duten dokumentazioarekin batera, ibilbidearen planoak gaineratu beharko du non bere kokapen eta lokalizazio zehatz hauek agertu behar direlarik:

- Bulego iraunkorra: izenemate tokia – Idazkaritza
- Irteera eta Helmuga
- Laguntza mekanikorako postuak (Boxak)
- Podiuma
- Dutzak eta aldagelak
- Talde, ofizial zein epailentzako erresebatutako aparkalekua

Balizko:

- Dopin-aurkako gela
- Mediku-osasun zerbitzuak
- Publikorako aparkalekua

PUBLIZITATEA ETA BABESLEAK

Antolatzaileak 10 metroko hesia utziko du helmuga-marraren aurretik eta atzetik, Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren publizitate-konpromisoetarako.

Euskal Kirol Federazioak eskubidea du ibilbidean zehar egoki deritzon euskarriak eta kokapenak aukeratzeko, EUSKADIKO BTT OPEN txapelketetako babesleen publizitatea erakuste aldera.

Proba bakoitzeko antolatzaileek konpromisoa hartzen dute Euskal Kirol Federazioaren eta EUSKADIKO BTT OPEN txapelketetako babesleen logotipoak lehenetsuzko leku batean sartzeko, probaren hedapenentarako eta publizitaterako euskarri inprimatu guztietan (prentsa, kartelak, muralak, esku-programak...).

Akordio horien hausten baditu, probak sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.

PROBEN IRAUPENA ETA DISTANTZIAK

EUSKADIKO BTT OPEN – XCO txapelketan:

PROBA	GIRTEERA	KATEGORIAK	IRAUPENA	ZENBAKIAK
1 ^a	00H.00	ELITE 23 URTE AZPIKOAK MASTER 30	± 90' ± 75'	1-120 ZURIA 151-200 GORRIA 250-399 HORIA
2 ^a	00H.02	JUNIOR MASTER 40/50/60	± 60'	201-235 BERDEA 401-500 URDINA
3 ^a	00H.04	OPEN EMAKUMEAK KADETEAK (G y E)	± 60' ± 45'	501-550 FUKSIA 551-600 GRISA

Olinpiko (XCO) modalitateko proba guztiak 4 km eta 6 km arteko zirkuituan egingo dira.



EUSKADIKO BTT OPEN – XCM probetan, 60 kilometroko distantziak egingo dira gutxienez. Ibilbidea seinaleztatuta egongo da: 10 kilometro bakoitzean kartelak jarriko dira, zenbat distantzia geratzen den adierazteko. Proba zirkuitu bat bada, 20 kilometroko luzera izango du gutxienez.

Kasu horretan, antolatzaileak bi ibilgailu izango ditu, Epaimahai Teknikoa eramateko.

Probak 3 ordu iraungo ditu gutxienez.

LASTERKETA HERRIKOIA egiten denean, proba ofiziala baino 5 minutu beranduago hasiko da.

Antolatzaileek gauzatuko dute LASTERKETA HERRIKOIAREN inskripzioa. Ezinbestekoa da parte-hartzaileak FEDERATUTA EGOTEA EDO EGUNEKO ASEGURUA KONTRATATZEA.

Antolatzaileak emango dizkie zenbakiak edo plakak LASTERKETA HERRIKOIAREN parte-hartzaileei. Proba ofizialaren parte-hartzaileei emandako zenbakiez eta plakez bestelako formatua izango dute.

EUSKADIKO BTT OPEN – DH txapelketen ibilbideak 1,5 kilometroko luzera izango du gutxienez, eta 3,5 kilometrokoa gehienez.

2017.12.24

BULEGO IRAUNKORRA

Irteera/Helmuga zonen alboan, antolatzaileak lokal edo toki estalia jarri beharko du, korrante elektrikoko hartunearekin eta administrazio-lanak egiteko espazio nahikoarekin: izen-emateak, lizentzia-kontrolak, zenbakiak eta plakak ematea, sailkapenak eta emaitzak argitaratzea, etab.

IZENA EMATEA, PLAKAK, ZENBAKIAK ETA BIZIKLETAK MARKATZEA

Proba guztietan, parte-hartzaileek izena emateko epea proba hasi baino 45 minutu lehenago amaituko da.

Parte-hartzaileek Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako zenbakiak eta plakak erabil ditzakete soilik.

IRTEERA ZONA

Cross-Country (XCO eta XCM)

- Gutxienez 6 metroko zabalera izango du, eta 100 metro hartuko ditu behintzat, irteera-marratik hasita.
- Eredu lauan egongo da, edo aldapan, 500 metroko distantzia hartuta.
- Irteera-marra baino 30 metro lehenago, txirrindulariei deitzeko zona egongo da.
- Hesiak jarri behar dira, irteera-marraren aurreko eta osteko 50 metroetan gutxienez.
- Irteera-zonatik gertu, beroketak egiteko zona bat edukitzea komeni da.

Jaitsiera (DH)

- Komenigarria da irteera-arrapalak 2 metroko zabalera eta malda handia izatea. Irteeraren hurrengo 30 metroetan, babesak jarri behar dira.
- Irteeraren aurreko zona babestuta egon behar da, eta handia izan. Nahikoa lekua eduki behar du, hiru txirrindulari edo gehiago irteera hartzeko zain edukitzeko eta irteera-epaileak eta kronometratzaileek beren lana egin ahal izateko.
- Era berean, auto bat aparkatzeko lekua izan behar du, irteera- eta helmuga-komisarioek elkarrekin komunikatzeko sistemaren korrante-hartunea (12,8 volt) bertan konektatu ahal izateko.

IRISTE ZONA

- Cross-Country (XCO eta XCM) modalitatean, HELMUGA eremu lauan edo aldapan egongo da.
- Cross-Country (XCO eta XCM) modalitatean, iriste-zonak gutxienez 4 metroko zabalera izango du, eta Jaitsiera (DH) modalitatean, aldiz, 2 metrokoa.
- Erabat hesituta egongo da, eta galgatze-zona bat izango du, iriste-zonaren aurreko eta osteko 50 metroak hartuko dituena.
- Helmuga-marrak 5 zentimetroko zabalera edukiko du, eta zoruarekin kontrastea egiten duen kolore batekoa izango da. Zorura ondo itsatsita egongo da, eta helmugaren zabalera osoa hartuko du.



- *Helmuga* dioen pankarta helmuga-marraren gainean jarriko da, eta lurraren gainetik arrazoizko altuera batera egongo da, ibilgailuak arazorik gabe igarotzeko eta txirrindulariak urrutitik ikusteko moduan. Pankarta jartzea ezinezkoa bada, lauki zuri-beltzak dituzten bi banderaxorekin markatuko da helmuga-marra. Bandera horiek marraren albo banatan jarriko dira.
- Jaitsiera (DH) modalitatean, helmuga-marrarekin paraleloan instalazio bat egongo da, helmuga-epaileak, kronometrizaileak eta komisario laguntzaileak bertan lan egin dezaten. Eguraldi txarretik babestuta egongo da, eta mahaiez eta aulkiz hornituta.
- Halaber, instalazio horrek ibilgailu bat aparkatzeko nahikoa leku izan behar du, lasterketa-komisarioek elkarrekin komunikatzeko sistemaren korrante-hartunea bertan konektatu ahal izateko.
- Jaitsiera (DH) modalitatean, antolatzaileak parte-hartzaile guztiak irteera-zonara modu azkarrean eta etengabe eraman ahal izateko garraio nahikoak izango ditu.

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ETA ANOA HORNIDURARAKO ZONAK (XCO eta XCM): 2 ZONA

- Argi eta garbi identifikatu eta seinaleztatu dira, hasiera eta amaiera markatzen duten oholak erabilia. Publikoarengatik bereizita egongo dira, hesi baten bidez, eta antolakuntzako langileek kontrolatuko dute bertarako sarrera.
- Eredu lauan edo maldan egongo dira, txirrindulariak neurrizko abiadurara doazen leku batean. Horietako bat helmugako zonaren edo zuzenaren ostean egongo da. Bestea tarteko puntu batean egongo da, laguntza-teknikariak erraz iristeko moduko leku batean.
- Zabalera nahikoa izan beharko dute, txirrindulariak istripuak sortzeko arriskurik gabe igaro daitezten bertatik.
- Antolatzailearen erantzukizuna da zona horiek lasterketa ostean garbitzea.
- Probaren araudiarekin batera, antolatzaileak ibilbidearen planoan erantsiko du, eta bertan, anoa-hornidurarako eta laguntza teknikorako zonak behar bezala adierazita agertuko dira.
- EUSKADIKO BTT OPEN - XCO probetetan, anoa-hornidurarako eta laguntza teknikorako bi zona egon behar dira gutxienez, edo zona bikoitz bat.
- EUSKADIKO BTT OPEN - XCM probetetan, hiru zona egon behar dira gutxienez, anoa-hornidurarako eta laguntza teknikorako.

MEDIKUNTZA ZERBITZUAK ETA OSASUN ARRETA

- EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETAREN EGUTEGIKO proba guztietan, antolatzaileak izendatutako **SENDAGILE** batek emango du medikuntza-zerbitzua.
- Antolakuntzak gutxienez anbulantzia bat eduki beharko du ibilbidetik gertu, norbait osasun-zentro batera premiaz eramateko, hala behar balitz. Komenigarria da bi anbulantzia edukitzea.
- Zonak dituen ezaugarriengatik bertan istripuak egon daitezkeela aurreikusten bada, egokiena da medikuntza-eta/edo osasun-arretarako bertan kokatzea.
- Jaitsiera (DH) modalitateko entrenamendu ofizialetan zein lasterketan, antolatzaileak bermatu behar du saio guztietan medikuntza-zerbitzua dagoela eta arreta ematen duela (EUD eta anbulantzia, behintzat).

BIDEETAKO ORDEN ETA SEGURTASUN ZERBITZUA

- Cross-Country (XCO eta XCM) modalitatean, ibilbidea argi seinaleztatuta egongo da, geziz eta xingolaz osatutako sistema baten bidez. Seinaleen bidez, jarraitu beharreko bidea, norabide-aldaketak eta gune arriskutsuak markatuko dira. Bidegurutzeetara iritsi baino 10 metro lehenago gezi bat jarriko da, eta beste bat bidegurutzea igaro eta 10 metrora, norabidea egokia dela egiaztatzeko. X zeinua erabiliko da norabide okerra adierazteko, ondo ikusteko moduko leku batean.
- Antolatzaileak lasterketari hasiera eta amaiera (erratz-motorra/bizikleta) emateko motorrak edo bizikletak jarriko ditu.
- Babes-hesiak jarri beharko dira probaren irteeran eta helmugan.
- Antolakuntzako kideek ibilbideko bidegurutzeak eta gune arriskutsuak estali eta seinaleztatu dituzte.
- Bidegurutzeetan eta gune arriskutsuetan dauden antolakuntza-langileek jantzi ikusgai homologatuak eraman beharko dituzte.
- Segurtasun Zerbitzuan jarduten duten antolakuntza-langileek seinale egokiak eduki beharko dituzte, hala nola banderaxo horiak.
- Probaz kanpoko ibilgailuei eta pertsonen bidea moztuko diete, lasterketari amaiera ematen dion motorra/bizikleta igaro arte.
- Autoritateen edo gaitutako antolakuntza-langileen ardura da probaren kontrola eta ordena mantentzea, parte-hartzaileei eta bide publikoetako (errepideak, kaleak...) beste erabiltzaileei dagokionez. Era berean, antolakuntza-langileek autoritate-agenteen irizpideak beteko dituzte.



- Ertzaintzaren (edo udaltzaingoaren) argibideak jarraituko dituzte, probaren baimen- eta segurtasun-baldintzei dagokienez. Baimenean jasotako baldintzetako bat betetzen ez bada, Ertzaintzak (edo udaltzaingoak) bertan behera utziko du proba, eta dagokion espediente zigortzailea abiarazi.

LASTERKETA IREKITZEA ETA IXTEA

- Antolatzaileak gutxienez bi laguntza-motor aurreikusiko ditu. Probak martxan izan bitartean, motorretako bat aurretik joango da, lasterketaren bidea irekiz, eta bestea atzetik, lasterketari amaiera emanez.
- Komenigarria da biak helmuga-zonarekin irratiz komunikatuta egotea, txapelketak iraun bitartean ibilbidean egon daitekeen edozein intzidentziaren berri emateko.
- Antolatzaileak konpromisoa hartzen du zirkuituan segurtasuna mantentzeko proba amaitu arte, parte-hartzaileei ahalik eta segurtasun-baldintzarik handienak bermatuta.

DUTXAK

Antolatzaileak instalazio egokitu bat izan beharko du, parte-hartzaileek dutxa hartu ahal izateko

DOPINAREN AURKAKO KONTROLA

Antolatzaileak dopinaren aurkako kontrola egiteko toki egokia eta prestatua izan beharko du.

APARKALEKUA

Antolatzaileak gune erreserbatu bat gaitu eta antolatuko du helmuga-zonatik gertu, parte-hartzaileen taldeentzako ibilgailuak, ibilgailu ofizialak eta lasterketa-komisarioen ibilgailuak aparkatzeko.

ENTRENAMENDU OFIZIALAK – JAITSIERA (DH)

- Antolatzaileak proba-dokumentazioan zehaztu beharko du entrenamendu ofizialik aurreikusita duen.
- Antolatzaileak ez du erantzukizunik entrenamenduen eta lasterketa ofizialen orduetatik kanpo proba-ibilbidean gertatzen diren intzidentzien gainean.

JARDUTEKO PROTOKOLOA ISTRIPU LARRIETAN – JAITSIERA (DH)

- Antolatzaileak segurtasun-langile nahikoak jarri behar ditu bereziki arriskutsuak diren ibilbide-zonetan.
- Langileek komunikazio zuzena izan behar dute irteera-epailearekin, irradi edo telefono (mugikor) bidez.
- **Istripu larriren** bat gertatzen bada eta horren ondorioz bidea **ibilgaitz** badago, honela jardungo dira:

Lehenik: banderatxo gorrien eta txilibituen bidez, gunera hurbiltzen diren gainerako txirrindulariei gelditzeko abisua emango diete (egoera larriagoak saihesteko).

Bigarrenik: irradi edo telefono bidez, irteera-epaileari lehenbailehen jakinaraziko diete gainerako txirrindularien irteera kautelaz eten behar duela.

- Edonola ere, proba hasi aurretik, erabat komenigarria da antolatzaileak eta epaimahai teknikoak istripuetan jarduteko modua eta irizpideak adostea.

GARAIKURRAK

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emango ditu Amaierako Sailkapen Orokorreko garaikurrak.

Euskadiko BTT OPEN – XCO

Orokorrean, antolatzaileak gutxienez sari hauek aurreikusi beharko ditu kategorია bakoitzean:

- **Emakumeak:**
 - Kadete emakumeen 1., 2. eta 3. sailkatuak probetan
 - Emakumeen Open kategoriako probetan 1., 2. eta 3. Sailkatutakoak



- **Gizonak**

- Master 40 (edo gehiagoko) kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Master 30 kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Kadete kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Junior kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Open (Elite eta 23 urtez azpikoak) txapelketako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- 23 urtez azpikoen kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak

Euskadiko BTT OPEN – XCM

- Proban sailkatutako Open (Elite eta S23) kategoriako 1., 2. eta 3. sailkatuak
- Proban sailkatutako 23 urtez azpikoen kategoriako 1., 2. eta 3. sailkatuak (*)
- Master 40 (edo gehiagoko) kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Master 30 kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Emakumeen kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak

(*) OPEN kategoriako probaren garailea 23 urtez azpiko txirrindularia bada, OPEN kategoriako irabazle absolututzat joango da zeremoniara. Kasu horretan, 23 urtez azpiko kategoriako 1. txirrindulariari dagokion protokolo-kapitulua ezabatuko da.

Euskadiko BTT OPEN – DH

Antolakuntzak zehaztuko du.



PROBA BAKOITZEKO SARIAK

A. EUSKADIKO BTT OPEN – XCO

Antolakuntzak zehaztuko du.

Tokiko antolatzaileek lehiaketaren egunean ordainduko dizkiote sariak txirrindulariei.

B. EUSKADIKO BTT OPEN - XCM (GUZTIRA 610 €)

POSTUA	OPEN	EMAKUMEAK
1	150	80
2	100	50
3	70	30
4	50	
5	30	
6	10	
7	10	
8	10	
9	10	
10	10	

C. EUSKADIKO BTT OPEN – DH

Antolakuntzak zehaztuko du.

D. EUSKADIKO BTT TXAPELKETAK

D.1. Cross-Country (XCO eta XCM)

EUSKADIKO BTT OPEN modalitatean jasotako probekin bezala jardungo da.

D.2. Jaitsiera (DH) (GUZTIRA 500 €)

POSTUA	OPEN	23 URTEZ AZPIKOAK	JUNIOR	KADETEAK	EMAKUMEAK
1	50	50	30	20	25
2	40	40	25	15	15
3	30	30	20	10	10
4	20	20	15	5	5
5	10	10	5	5	

Txirrindulariek lehiaketaren egunean bertan jasoko dituzte sariak, tokiko antolatzailearen eskutik.



PROBEN INSKRIPZIO KUOTAK ETXF-REN EGUTEGIETAN

Proba-motaren arabera, antolakuntzak zenbateko hauek ordaindu beharko dizkio Euskadiko Txirrindularitza Federazioari, **BANCO SANTANDER** erakundearen **0030 3463 45 0001024271** kontu-zenbakira dirua sartuz edo transferentzia eginez:

Proba-mota	EUSKADI	NAFARROA
EUSKADIKO BTT OPEN – XCO	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
EUSKADIKO BTT OPEN – XCM	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
EUSKADIKO BTT OPEN – DH	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
EUSKADI BTT TXAPELKETAK - XCO - XCM - DH	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾

⁽¹⁾ Oharra I: Arbitrajea barne hartzen du. Ez ditu dieta edota saririk barne hartzen.

⁽²⁾ Oharra II: Ez du arbitrajea barne hartzen; ezta ere dieta edota saririk.

EUSKADIKO BTT OPEN – XCM proben kasuan, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak bere gain du antolatzaileak ordaindutako 450 euroen eta proba bakoitzean eman beharreko sarien guztizko zenbatekoaren artean dagoen aldea.

2017.12.24

EUSKADIKO TXAPELKETAK

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak bostehun euroko (500,00 €) diru-laguntza emango die Federaziora kidetutako klubei, Euskadiko Txapelketak antolatzeagatik.

Euskadiko Txapelketak antolatzen dituzten klubek inskribatzeko diru-kopuru bat eskatzen badiete txirrindulariei, ezingo dute diru-laguntzarik jaso.



PLIEGO DE CONDICIONES PARA ORGANIZADORES DE PRUEBAS DE BTT: OPEN DE EUSKADI BTT CAMPEONATOS DE EUSKADI BTT

24.12.2017

INTRODUCCION

Dadas las características particulares de las pruebas comprendidas en el OPEN DE EUSKADI BTT y en los CAMPEONATOS DE EUSKADI - BTT, tanto por su carácter como por el nivel de participación, los Organizadores de dichas pruebas deberán tener en especial consideración una serie de cuestiones, fundamentalmente relacionadas con la infraestructura logística y personal, para el óptimo desarrollo de las competiciones.

Este Pliego de Condiciones, en función a las Reglamentaciones de la Unión Ciclista Internacional y de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC), debe servir a los Organizadores como referencia del criterio a seguir.

CALENDARIO OPEN DE EUSKADI BTT

Está constituido por las pruebas comprendidas en:

- OPEN DE EUSKADI BTT – XCO (Circuito Olímpico)
- OPEN DE EUSKADI BTT – XCM (Maratón)
- OPEN DE EUSKADI BTT – DH (Descenso)
- CAMPEONATOS DE EUSKADI BTT – XCO, XCM y DH

Salvo indicación expresa, todas las referencias que se hacen al CALENDARIO OPEN DE EUSKADI BTT son igualmente aplicables a los CAMPEONATOS DE EUSKADI BTT por cuanto éstos forman parte del OPEN DE EUSKADI BTT respectivo de cada modalidad (XCO, XCM y DH).

RESPONSABILIDADES Y ÁMBITO COMPETENCIAL DEL ORGANIZADOR

- El Organizador es entera y exclusivamente responsable de la organización de su prueba, tanto en su conformidad con los reglamentos de la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa (ETxF), como en el ámbito administrativo, financiero y jurídico.
- La dirección general de la prueba será asumida por el Organizador. Los problemas de organización puramente materiales serán resueltos por la Dirección de Organización, respetando los reglamentos vigentes y habiendo formulado consulta al Jurado Técnico.
- El control ejercido por la ETxF y el Jurado Técnico de la prueba se dirige únicamente a las exigencias deportivas, por lo que el organizador es el único responsable de la calidad y seguridad de la organización y de las instalaciones.
- El Organizador es el único responsable ante las autoridades, participantes, acompañantes, oficiales y espectadores.

INSCRIPCION DE LA PRUEBA

El Organizador, a través de su Federación Territorial, deberá solicitar a la ETxF la inscripción de su prueba en el CALENDARIO OPEN EUSKADI BTT correspondiente según la modalidad.

Todas las pruebas se disputarán en sábado, domingo, o festivo en toda la Comunidad Autónoma Vasca. No será admitida prueba alguna que coincida en la misma fecha con el CALENDARIO OPEN DE EUSKADI BTT de su misma modalidad.



TRAMITACION DE LAS PRUEBAS – DOCUMENTACIÓN – LOCALIZACIÓN DEL RECORRIDO

El Organizador deberá realizar a través de su Federación Territorial, -NO a través de la ETxF- los trámites oportunos para la autorización deportiva y gubernativa de la prueba, como mínimo 30 (treinta) días antes de la fecha prevista para la celebración de la competición.

En la documentación deberán figurar detalladamente especificadas las siguientes cuestiones:

- Horarios previstos para las salidas de las competiciones.
- Horarios previstos para los entrenamientos oficiales (si los hubiere).
- Lugar en que vayan a ser realizadas las inscripciones.
- Longitud del recorrido (cuerda del circuito, nº de vueltas a recorrer).
- Relación de trofeos.
- Relación y distribución de premios (si los hubiere).

Junto a la documentación exigida por las Federaciones Territoriales, el Organizador deberá adjuntar un Plano del Recorrido en el que se precise su ubicación exacta y las siguientes localizaciones:

- Oficina Permanente: lugar de inscripción - Secretaría
- Salida y Meta
- Puestos de Asistencia mecánica (Boxes)
- Podium
- Duchas y vestuarios
- Parking reservado a equipos, oficiales, y Comisarios de Carrera

Eventualmente:

- Local de Control Antidopaje
- Puestos de Asistencia médico-sanitaria
- Parking para público

PUBLICIDAD Y PATROCINADORES

El Organizador reservará 10 metros de valla antes y después de la Línea de Meta para los compromisos publicitarios de la ETxF.

La ETxF se reserva el derecho de disponer de los soportes y ubicaciones que estime oportunos para la exposición de la publicidad de los patrocinadores de las pruebas comprendidas en el OPEN DE EUSKADI BTT, en cualquier punto del recorrido.

Los Organizadores de cada prueba se comprometen a incluir, en lugar preferente, el logotipo de la ETxF y de los patrocinadores del Calendario OPEN DE EUSKADI BTT en todos aquellos soportes impresos (prensa, carteles murales, programas de mano...) de difusión y publicidad de su prueba.

El incumplimiento de estos acuerdos ocasionará el pago de los gastos ocasionados de dicha prueba.

DURACION Y DISTANCIAS DE LAS PRUEBAS

En las pruebas del OPEN DE EUSKADI BTT – XCO:

PRUEBA	SALIDA	CATEGORÍAS	DURACIÓN	DORSALES
1ª	00H.00	ELITE		1-120 BLANCO
		SUB 23	± 90'	151-200 ROJO
		MASTER 30	± 75'	250-399 AMARILLO
2ª	00H.02	JUNIOR		201-235 VERDE
		MASTER 40/50/60	± 60'	401-500 AZUL
3ª	00H.04	MUJERES OPEN	± 60'	501-550 FUCSIA
		CADETES (H y M)	± 45'	551-600 GRIS

Las pruebas de OPEN DE EUSKADI BTT - XCO se disputarán sobre un circuito entre 4 y 6 Km. de cuerda.



Las pruebas de OPEN DE EUSKADI BTT - XCM se disputarán sobre una distancia mínima de 60 Km. El itinerario debe estar señalizado cada 10 Kms. mediante carteles que informen de la distancia restante por recorrer. Si la prueba se disputa en circuito, la longitud mínima de dicho circuito ha de ser de 20 Kms.

En este caso, el Organizador dispondrá de dos vehículos para el traslado del Jurado Técnico.

La duración mínima de la prueba debe ser de 3 horas.

El Inicio de la MARCHA POPULAR, si la hubiere prevista, comenzará 5 minutos después de la prueba oficial.

La inscripción de la MARCHA POPULAR será realizada por miembros de la Organización. Es imprescindible que todos los participantes estén FEDERADOS O CON SEGURO DE DIA.

El Organizador proporcionará los dorsales o placas para los participantes de la MARCHA POPULAR. Serán de formato distinto a los de los participantes de la prueba Oficial.

El recorrido de las pruebas de OPEN DE EUSKADI BTT - DH deberá tener una longitud mínima de 1,5 km. y máxima de 3,5 Kms.

24.12.2017

OFICINA PERMANENTE

Anexo a las zonas de Salida/Meta, el Organizador deberá disponer de un local o lugar cubierto, con toma de corriente eléctrica y con espacio suficiente para la realización de tareas administrativas tales como inscripciones, control de licencias, entrega de dorsales y placas, clasificaciones, publicación de resultados...

INSCRIPCIONES, PLACAS, DORSALES Y MARCAJE DE BICICLETAS

Las inscripciones de participantes para todas las pruebas se cerrarán 45 minutos antes de la hora fijada para el comienzo de cada una de ellas.

Únicamente los dorsales y placas facilitados por la ETxF serán válidos para su empleo por parte de los participantes.

ZONA DE SALIDA

Cross-Country (XCO y XCM)

- Deberá tener una anchura de, al menos, 6 metros durante una distancia mínima de 100 metros después de la Línea de Salida.
- Estará situada en una zona llana o en subida sobre una distancia 500 metros.
- Se dispondrá de una Zona de Llamada a los corredores 30 metros antes de la Línea de Salida.
- Se colocarán vallas, como mínimo 50 metros antes y después, de la Línea de Salida.
- Se recomienda tener prevista una Zona de Calentamiento en las inmediaciones de la Zona de Salida.

Descenso (DH)

- Es recomendable una rampa de Salida con una anchura de 2 metros y de desnivel importante. Se colocarán protecciones en los primeros 30 metros después de la Salida.
- La zona anterior a la Salida deberá ser suficientemente amplia y protegida para la colocación de, al menos, tres corredores en espera de tomar la salida y para el desarrollo de las tareas propias del Juez de Salida y el Cronometrador.
- Así mismo, deberá disponer del espacio suficiente para el estacionamiento de un coche que ofrezca la toma de corriente (12,8 voltios) necesaria para la instalación del sistema de intercomunicación entre los Comisarios de Salida y Llegada.

ZONA DE LLEGADA

- En Cross-Country (XCO y XCM) la zona de META estará situada en una zona llana o en subida.
- La Zona de Llegada tendrá una anchura mínima de 4 m. en Cross-Country (XCO y XCM), y 2 m. en Descenso (DH).
- Estará totalmente vallada y contará con una zona de frenada de aproximadamente 50 metros antes y después de la Línea de Llegada
- La Línea de Llegada deberá estar constituida por una línea de 5 cms. de anchura y un color que contraste claramente con el color del suelo. Deberá estar perfectamente adherida sobre el pavimento y ocupará todo el ancho de meta.



- La pancarta con la inscripción *Meta* debe ser fijada sobre la Línea de Llegada, a una altura razonable del suelo que permita su localización a los corredores a distancia. En caso de imposibilidad de colocación de dicha pancarta, la Línea de Llegada será señalizada mediante dos banderines –uno a cada lado de la Línea de Llegada- de cuadros blancos y negros.
- En Descenso (DH), paralelamente a la Línea de Llegada deberá disponerse de una instalación protegida de las inclemencias meteorológicas, y habilitada de mesas y sillas, para el desarrollo de las tareas propias de, al menos, el Juez de Llegada, Cronometrador y Comisario Adjunto.
- Dicha instalación, ha de disponer del espacio suficiente para el estacionamiento de un vehículo que facilite la toma de corriente para el sistema de intercomunicación entre los Comisarios de Carrera.
- En Descenso (DH), el Organizador dispondrá de los medios de transporte necesarios para el traslado rápido y continuo de los participantes a la Zona de Salida.

ZONAS DE ASISTENCIA TECNICA / AVITUALLAMIENTO (XCO y XCM)

- Deberán estar claramente identificadas y señalizadas con paneles de Comienzo y Final. Estarán separadas del público por un cerco y su acceso estará estrictamente controlado por personal de la Organización.
- Estarán situadas en un tramo llano o en subida, donde la velocidad de los corredores sea lo suficientemente moderada. Una de ellas estará ubicada una vez pasada la recta o zona de Llegada. La otra en un punto intermedio de fácil acceso para los técnicos de apoyo.
- Deberán ser lo suficientemente anchas como para permitir el paso de los corredores sin riesgo de accidente.
- El Organizador asume la responsabilidad de la limpieza de las zonas tras la conclusión de las competiciones.
- El Organizador incluirá en el Reglamento de la prueba un plano del recorrido con las zonas de Avituallamiento / Asistencia Técnica debidamente señalizadas.
- En las pruebas del OPEN DE EUSKADI BTT - XCO, como mínimo deberán establecerse dos Zonas de Asistencia Técnica / Avituallamiento, o una doble.
- En las pruebas del OPEN DE EUSKADI BTT - XCM, como mínimo deberán establecerse tres Zonas de Asistencia Técnica / Avituallamiento.

SERVICIO MEDICO Y ASISTENCIA SANITARIA

- En todas las pruebas del CALENDARIO OPEN DE EUSKADI BTT el servicio médico será prestado por un **MÉDICO** designado por el Organizador.
- El Organizador deberá tener prevista al menos una ambulancia en las inmediaciones del recorrido, al objeto de asegurar un traslado urgente a algún centro sanitario. Es recomendable la presencia de dos ambulancias.
- Resulta especialmente oportuno que las asistencias médicas y/o sanitarias estén ubicadas en las partes del recorrido que, por sus características, hagan prever la existencia de posibles accidentes.
- En Descenso (DH), durante todas las sesiones, tanto de entrenamientos oficiales como de competición, el Organizador garantizará la presencia y asistencia del servicio sanitario (al menos, DUE y ambulancia).

SERVICIO DE ORDEN Y SEGURIDAD VIAL

- En Cross-Country (XCO y XCM) el recorrido deberá estar claramente señalizado mediante un sistema de flechas y cintas de las mismas características para todo el recorrido. Con ellas se indicará el itinerario a seguir señalando los cambios de dirección, las intersecciones y todas aquellas situaciones potencialmente peligrosas. Una flecha será colocada 10 m. antes de cada intersección y a 10 m. después de la intersección para confirmar la buena dirección a seguir. El signo X, que sirve para anunciar una dirección incorrecta, deberá ser colocado bien visible.
- El Organizador debe incorporar motos o bicicletas de apertura y cierre de carrera (Moto/bicicleta Escoba).
- Se deberán colocar vallas protectoras de defensa en las Zonas de Salida y Llegada de la prueba.
- Los cruces del recorrido y zonas peligrosas del mismo serán cubiertos y señalizados por miembros de la Organización.
- El personal de la Organización destinado a cruces y zonas peligrosas deberá estar dotado de vestimenta de alta visibilidad homologada.
- El personal de Organización que actúe en el ámbito del Servicio de Seguridad deberá estar provisto de elementos de señalización adecuados tales como banderas amarillas.
- Impedirán el paso de personas y vehículos ajenos a la prueba, hasta el paso de la moto/bicicleta de cierre de carrera.
- El control y orden de la prueba, tanto en lo que respecta a los participantes como al resto de usuarios de vía públicas (carreteras, calles...), estará encomendado a los agentes de la autoridad o al personal de la Organización habilitado, que actuará conforme a las directrices de los agentes de la autoridad.
- En Cross-Country (XCO y XCM), un vehículo puesto a disposición del Jurado Técnico encabezará la marcha neutralizada hasta dar el inicio oficial de la competición si para ello se debiera atravesar algún casco urbano.



- Serán atendidas las instrucciones de la Ertzaintza (o Policía Local) en cuanto al cumplimiento de las condiciones de la autorización y de seguridad de la prueba. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en la autorización llevará consigo la suspensión de la misma por la Ertzaintza (o Policía Local), y todo ello sin perjuicio de la posible incoación del oportuno expediente sancionador.

APERTURA Y CIERRE DE CARRERA

- El Organizador tendrá prevista la asistencia de al menos, dos motos. Durante el desarrollo de las pruebas, una de ellas circulará abriendo carrera y la otra actuará como cierre de la misma.
- Es recomendable que ambas estén comunicadas por radio con la Zona de Meta, de manera que puedan informar de cualquier incidencia que pudiera producirse en el recorrido durante el transcurso de las competiciones.
- El Organizador se compromete a mantener la seguridad del circuito con las máximas garantías para los participantes hasta la finalización de la prueba.

DUCHAS

El Organizador de cada prueba deberá tener prevista una instalación acondicionada que ofrezca el servicio de duchas para los participantes de la prueba.

CONTROL ANTI-DOPAJE

El Organizador deberá tener previsto un local adecuado y acondicionado para realizar el Control Anti-dopaje.

PARKING

El Organizador de la prueba habilitará y reservará un área cercana a la Zona de Llegada para el aparcamiento reservado a los vehículos de equipos participantes, oficiales y Comisarios de Carrera.

ENTRENAMIENTOS OFICIALES – DESCENSO (DH)

- El Organizador deberá especificar en la documentación de su prueba si tiene previstas las sesiones de entrenamientos oficiales.
- Fuera de estos horarios y los de la competición propiamente dicha, el Organizador no será responsable de cuantas eventualidades pudieran sucederse en el recorrido de la prueba.

PROTOCOLO DE ACTUACIÓN EN CASOS DE ACCIDENTES GRAVES – DESCENSO (DH)

- El Organizador deberá tener previsto Personal de Seguridad suficiente en aquellos puntos del recorrido especialmente peligrosos para el paso de los corredores.
- Este personal deberá tener comunicación directa con el Juez de Salida, bien sea a través de sistema de radio o de telefonía (móvil).
- En caso de producirse un *accidente grave*, y que como consecuencia del mismo el recorrido quede *impracticable*, actuarán de la forma siguiente:

Primero: mediante banderines rojos y toques de silbato advertirán urgentemente a los corredores que se acercan a las inmediaciones del accidente, de que deben detener su marcha (al objeto de evitar situaciones de mayor gravedad).

Segundo: mediante radio o telefonía, advertirán urgentemente al Juez de Salida para que éste proceda a suspender cautelarmente la salida de los corredores restantes.

- De cualquiera de los modos, resulta especialmente conveniente que el Organizador y el Jurado Técnico, previamente al comienzo de cada prueba, convengan en los criterios y forma de actuación en situaciones de este tipo.



TROFEOS

Los trofeos correspondientes a las Clasificaciones Generales Finales, serán aportados por la ETxF.

Open de Euskadi BTT – XCO

Con carácter general, el Organizador de cada prueba deberá prever como mínimo, la siguiente relación de trofeos por categorías:

- Mujeres:

- 1ª, 2ª y 3ª Mujeres Cadete clasificadas en la prueba
- 1ª, 2ª y 3ª Mujeres Open clasificadas en la prueba

- Hombres:

- 1º, 2º y 3º Master 40 (ó más) clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Master 30 clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Cadetes clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Junior clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Open (Elite y Sub 23) clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Sub 23 clasificados en la prueba (*)

Open de Euskadi BTT - XCM

- 1º, 2º y 3º Open (Elite y S23) clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Sub-23 clasificados en la prueba (*)
- 1º, 2º y 3º Master 40 (ó más) clasificados en la prueba
- 1º, 2º y 3º Master 30 clasificados en la prueba
- 1ª, 2ª y 3ª Mujeres clasificadas en la prueba

(*) En el caso de que el vencedor de la prueba en categoría OPEN sea un corredor Sub 23, éste acudirá como vencedor absoluto de la categoría OPEN a la ceremonia. En ese caso, será eliminado el capítulo protocolario correspondiente al 1er. corredor de la categoría Sub 23.

Open de Euskadi BTT – DH

A determinar por el Organizador.



PREMIOS DE CADA PRUEBA

C. OPEN DE EUSKADI BTT – XCO

A determinar por el Organizador.

Los premios serán abonados por el Organizador local directamente a los corredores el mismo día de la competición.

D. OPEN DE EUSKADI BTT - XCM (TOTAL 610 €)

PUESTO	OPEN	MUJERES
1	150	80
2	100	50
3	70	30
4	50	
5	30	
6	10	
7	10	
8	10	
9	10	
10	10	

C. OPEN DE EUSKADI BTT - DH

A determinar por el Organizador.

D. CAMPEONATOS DE EUSKADI BTT

D.1. Cross-Country (XCO y XCM)

Idem que las pruebas comprendidas en la respectiva modalidad de OPEN DE EUSKADI BTT.

D.2. Descenso (DH) (TOTAL 500 €)

PUESTO	OPEN	SUB-23	JUNIOR	CADETE	MUJERES
1	50	50	30	20	25
2	40	40	25	15	15
3	30	30	20	10	10
4	20	20	15	5	5
5	10	10	5	5	

Los premios serán abonados por el Organizador local directamente a los corredores el mismo día de la competición.



CUOTAS DE INSCRIPCIÓN EN LOS CALENDARIOS DE LA ETxF

El Organizador deberá abonar a la ETxF, mediante ingreso o transferencia en la cuenta bancaria nº **0030 3463 45 0001024271** de la entidad **BANCO SANTANDER**, las siguientes cantidades dependiendo de cada tipo de prueba:

Tipo de prueba	EUSKADI	NAVARRA
OPEN DE EUSKADI BTT – XCO	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
OPEN DE EUSKADI BTT – XCM	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
OPEN DE EUSKADI BTT – DH	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾
CAMPEONATOS DE EUSKADI BTT - XCO - XCM - DH	300 € ⁽¹⁾	--- ⁽²⁾

⁽¹⁾ Nota I: Incluye Derechos de Arbitraje. No incluye premios y/o dietas.

⁽²⁾ Nota II: No incluye Derechos de Arbitraje, ni tampoco premios y/o dietas.

En las pruebas del OPEN DE EUSKADI BTT – XCM, la ETxF asumirá la diferencia entre la cantidad de 450 € aportada por el Organizador y el montante total de premios a distribuir en cada prueba.

24.12.2017

CAMPEONATOS DE EUSKADI

La ETxF subvencionará con la cantidad de quinientos (500,00) € a aquellos clubs afiliados a la ETxF que organicen Campeonatos de Euskadi.

Aquellos clubs organizadores de Campeonatos de Euskadi que exijan el pago de cantidad económica alguna en concepto de inscripción de los participantes no tendrán derecho a dicha subvención.